


6 mantangorri



AZOKA



## LIBURUA

**Izenburua:** 'Percy Jackson eta olinpiarrak (I). Tximistaren lapurra'. **Egilea:** Rick Riordan. **Marrazkiak:**Lee Wildishen. **Itzulpena:** Koro Navarro. **Orrialde kopurua:** 402 orrialde. **Argitaletxea:** Mezulari.**Mari Eli Ituarte**

MEZULARI ARGITALETXEKO EUSKARAZKO BILDUMEN ARDURADUNA

# «Irakurtzera ohitura ez dauden gaztetxoak ere harrapatu ditu»

Percy Jackson institutura joaten da gazte guztiak bezala, baina berezitasun bat du, berak hasieran zer den ez badaki ere. Azken boladan munstro mitologikoak testu liburutik atera eta bere bizitzan sartu direla dirudi. Hala hasten dira Percyk biziko dituen abenturak. Mutil arrunta dela uste du, baina Poseidonen semea dela jakingo du laster. Horrek dakarren guztiarekin. Irakurlea abentura paragabeetan murgilduko da berehala, arrakasta handiko bilduma egin baitu Rick Riordanek.

**Zer kontatzen dute istorioek?**

Percy Jackson institutu guztietatik botatzen dute. Berak ez daki zergatik gertatzen den hori, baina zerbait berezia duela badaki, zer den ez dakien arren. Amarekin batera dago beti, eta amak badaki sekretua zein den. Abenturak aurrera jarraitzen du, eta, bat-batean, Percyk eskoian agerpen berezi bat izaten du, eta beste lagun batekin batera konturatzen da botere bereziak dituela. Bidaiatzen hasten dira, eta kanpamentu batean amaitzen dute. Han bera bezalako jende berezia bizi da; denak dira Olinpoko jainkoen seme-alabak, sasiko seme-alabak zehazki. Jainkoek debekatua zuten izakiekin seme-alabak izatea, eta, ho-

rregatik, askok ez dakite noren seme-alabak diren. Percy da horieta-ko bat. Horrek garrantzia du kanpalukan, horren arabera etxe batzuetan edo besteetan kokatzen zaituztelako eta bakoitzak bere botereak garatzen ikasten duelako etxe horietan.

**Zer egiten dute han?**

Kanpamentuan misio batzuk bete behar dituzte. Egun batean norbaitek Zeulen tximista lapurtzen du, eta misio batera bidaltzen dute Percy. Abentura asko pasatzen di- tu lagunekin batera, eta momentu batean heroi bat bezala agertzen da, balentria ikaragarria egiten duelako. Orduan, Poseidonen iku-rra den hiruhortzetako ateratzen da denen aurrean. Eta orduan de- nek jakiten dute Poseidonen seme dela. Olinpoko jainkoen artean

Poseidon hiru boteretsuenen arteko bat da, eta hortik aurrera gurtu egiten dute Percy.

Lehenengo liburuko abenturak dira horiek, *Tximistaren lapurraliburuoa*. Baino gainontzekoetan ere ez da geldirik egoten.

**Nolakoak dira Percyren abenturak?**

Oso dibertigarriak, abenturazkoak. Oso liburu mardulak dira; bakoi-tzak 400 orrialde inguru ditu. 13 urteko gazteek ere erraz hartzen du-te, baina irakurle pittin bat treba-tuak izan behar dute orrialde kopuruagatik. Hala ere, entzun dut irakurtzera ohitura ez dauden gaztetxoak ere harrapatu dituela isto-rio honek.

Filma ere egin dute, eta horrek jendea irakurtzera animatzea lortu du. Inguruko gaztetxoen artean

proba egin dut, eta berehala zirra- ra sortzen die. Gustura irakur- tzen dute. Abentura asko dira, eta gertaera barregarriak ere baditu. Riordan oso narratzaile ona da, eta gaztetxoen erregistro hori oso ondo harrapatu du. Koro Navarrok itzuli ditu ingelesetik euskarara zuzenean, eta kalitatea oso ona da; itzultzale oso treba-tua da, eta badaki erregistro horrekin bat egiten.

Idazleak afizio handia du Jainko-ekin, eta ahalegintzen da Jainko horien arteko irudimenezko borro-kak gaur egungo istorioetan txer- tatzen. Nolabait fikzioak eramatzen du horra. Sinesgarri egiten da, nahiz eta fantasia izan.

**Zenbat liburu ditu bildumak?**

Zortzi inguru, eta guztiak euskara- tzea da gure asmoa. Lehenengo kalean dago jada, eta arrakasta handia izan du. Bigarrena, *Munstroen itsasoia*, urrian argitaratuko du- gu. Hirugarrena ere, *Kitenaren madarikazioa*, itzulita dago; otsailean- edo kaleratuko du. Eta laugarre- na ere bidean dago. Filma ere egin da, eta Euskal Herriko zinemetan ere estreinatu dituzte.

**AEBetan sari asko irabazi ditu liburu sortak ezta?**

Leku guztietan arrakasta izugarria izan dute liburuek. *Tximistaren la-purraliburuak* The New York Times egunkariko 2005eko Liburu Nabarmena saria eskuratu zuen. Child Magazine aldizkariko Urteko Libururik Hoberenaren saria eta School Library Journal aldizkariko Urteko Libururik Hoberenarena. Eta Munstroaren itsaso Book Sense elkar- tean gehien salduriko liburua izan zen, eta 2006an Book Sense elkartean gehien sal- duriko hamar liburueta bat ere izan zen. Horrez gain, kritika bikainak izan dituzte orain arte liburu guztiekin. Hala defini- ntu dituzte adituek: «Konta- kizun bizkorra eta umoretsua, ekintzaz, ateraldi xele- brez eta gizakiaz gainerako bo- terez betea» eta «bere per- tsonaia heroikoena dirudien egitandi bat burutuz, hasiera zirragarria baino indartsua- goa den jarraipen bat osatu du Riordanek».

*Tximistaren lapurra* filmeko irudi bat. Percy Jackson lagunekin agera da urez inguraturuta. BERRIA